

NOR NAIZ?

San Fernando umezurztegian, hamalau urteko neska bat leihoari begira ari zen. Bere izena Ana zen baina, hori ez zen bere benetako izena; umezurztegiko zuzendariak asmatu zuen duela hamalau urte, norbaitek kalean abandonatuta aurkitu zuenean. Inork ez zekien nor zen Ana, ezta berak ere.

—Berriro ere familia horri ezetz esan diozu? —galdetu zion Norak, bere lagun minak. Nora lau urte zituela iritsi zen umezurtegitira, bere ama gaixotasun batengatik hil ostean.

Anak asperen egin zuen.

—Ezin dut Nora. Nire gurasoak nortzuk diren jakin gabe ezin naiz beste inoren alaba izan. Nonbaiten, nire zain daudela pentsatu nahi dut...nire bila dabiltzala.

Baina Anak ez zekien, Clara, bere ama, hilda zegoela eta bere aita, ez zela bera bilatzen ari zen heroia.

Aste bat geroago, umezurtegitira garbitzaile berri bat heldu zen, bere izena Aitana zen. Emakume despistatua zirudien. Iritsi zen egunean, Ana ikusi eta txundituta geratu zen. Zerbait ez zihoala ondo ematen zuen.

Egun batzuk geroago, Aitanak, Anak eta Norak sukaldean ikusi zituen. Inor inguruan ez zegoela ziurtatu eta zerbait kontatzen hasi zien.

—Neskak, etorri hona momentutxo bat mesedez. Ni umezurtegitiko garbitzaile berria naiz eta oraindik ez dut inor ezagutzen baina zuri ikusi zintudanean, oso deigarria iruditu zitzaidan zure aurpegia. Lehenago ikusi bazintudan bezala—hasi zen Aitana hizketan—. Eta pentsatzen hasi nintzenena, zure aurpegia zergatik egiten zitzaidan ezaguna konturatu nintzen. Gauza da, duela gutxi arte, hiritik kanpo dagoen txalet handi eta luxuzko batean egiten nuela lan. Nagusia gizon oso aberats bat da, Jason deiturikoa. gizon hotza da, gaiztoa nire ustez.

Anak ez zuen oso ondo ulertzen Aitana esaten ari zena baina beldur apur bat ematen zion.

—Kontua da—jarraitu zuen Aitanak—, etxe hartako gela batean emakume baten erretratu bat dagoela. Clara zuen izena, Jason emazte hila. Ana...zu haren berdin-berdina zara. Begi berdinak, irribarre bera...Zure ama zela zin egingo nuke.

Anaren aurpegia bapatean aldatu zen.

—Orduan, Jason hori nire aita izan daiteke?

—Baliteke —erantzun zuen Aitanak—. Baina zerbaitek ez du koadratzen. Esaten dutenez, Clarak bere buruaz beste egin zuen, baina Jasonen etxean sekretu asko daude.

Anak ezin zuen gehiago itxaron. Egi guztia jakin nahi zuen eta Norak nola ez lagundu egingo zion. Biak oso beldurtuta zeuden baina ala ere edozer egingo zuten egia jakiteko.

—Nola sartuko gara txalet hartan? —galdetu zuen Norak—. Ez da hain erraza, ez digute atea irekiko.

Baina Aitak bazuen jada plan bat pentsatuta. Instagramen, duela egun batzuk iragarki bat ikusi zuen, iragarki horrek honako hau esaten zuen: *“Zerbitzariak eta garbitzaileak behar dira Jasonen etxeko festa pribaturako, interesatuta bazaude deitu zenbaki honetara”*.

—Hau da gure aukera—esan zuen Aitanak —. Ni joango naiz eta zuek nire laguntzaile bezala sartuko zaituztet. Baina berez, ezin zaretenez umezurztegitik irten, ezkutuan irten beharko gara gauen, inork ikusi ezin gaituenean.

Hurrengo ostiralean, gauerdian, elkartu eta umezurztegitik irten eta txaletera abiatu ziren. Etxea izugarri handia zen; lorategi erraldoi bat zegoen, igerilekua eta guztia. Eta segurtasun kamerak zeuden nonahi. han, Jason bizi zen bere emazte berriarekin eta bere ni seme-alabekin.

Festaren musika ozen zegoen bitartean, Ana goiko solairura igo zen ezkutuan, Aitanak emandako jarraibideei jarraituz. Gela bat ireki zuen, eta han ikusi zuen Clararen argazki erraldoia. Eta Aitanak esan zion bezala, bera berdin-berdina zen.

Bat-batean, atea ireki zen. Gizon altu bat zen, traje bat jantzita zuena. Oso garestia zirudien. Jason zen. Ana ikustean, zur eta lur geratu zen.

—Clara? —esan zuen hasieran, ahots dardarti batez. Baina gero, konturatu zen neska gazteago zela—. Nor zara zu? Eta zer giten duzu nire emaztearen gelan?

Anak Clararen argazkia seinalatu zion.

—Badakizu nor naizen. Zure alaba naiz. Zergatik abandonatu ninduzun kalean?

Jasonen aurpegia guztiz aldatu zen. Bapatean, irribarre psikopata bat agertu zen bere aurpegian.

—Alaba? —egin zuen barre gizonak—. Ez zara nire alaba, traba bat besterik ez zara. Zure ama, Clara, tuntun bat zen. Bere familiaren diru guztia nirea izatea nahi nuen eta bera...bera bidetik kendu behar izan nuen. Bere buruaz beste egin zuenaren istorioa polita izan zen, mundu guztiak sinetsi zuen.

Anaren bihotza lasterka ari zen.

—Hil egin zenuen...diruarengatik. Psikopata madarikatua.

—Bai —esan zuen Jasonek, poliki-poliki Anarengana poliki-poliki hurbiltzen zen bitartean—. Eta zu kalena utzi zintudan jaio eta gutxira, oinordezko bat egoteak nire plana izorratuko zuelako. Diru guztia niretzat geratu zen. Eta, orain, zure amarekin egin nuen bezala, zurekin amaituko dut. Isilik geratuko zara betirako.

Jason Anaren lepoa estutzera joan zenean, Norak gelako atea ireki zuen kolpe batez. Eskuan mugikorra zuen eta dena grabatu zuen.

—Aitortza guztia grabatu dut Jason, akabatuta zaude— oihukatu zuen Norak.

Jason gero eta haserreago zegoen, biekin akabatu nahi zuen, baina une horretan, sirena hotsak entzun ziren, poliziak ziren. Aitanak, beheko solairuan zegoela, poliziari deitu zion, tentsioa igarri zuenean. Poliziak gela hartan sartu eta Jason lurrera bota eta eskuburdinak jarri zizkioten.

Ana lurrera erori zen, arnasa hartu nahian. Norak besarkatu egin zuen.
—Amaitu da Ana. Jada badakizu nor zaren.

Anak, Clararen argazkiari begiratu zion azkenengo aldiz. Jada ez zen neska galdu bat. Orain, bere gurasoak nortzuk ziren bazekien. Hortik aurrera, Ana pozik bizia ahal izango zuen, lasai eta seguru. Jada bazuen bere benetako familia, Aitana eta Ana. Beraiek ziren berak benetan maite zituen pertsonak, naiz eta odolekoak ez izan. Anarentzat hori zen balio zuen bakarra.